

2022ko otsaila

---

**Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia  
Plan Nazionaleko funtsei buruzko  
ohiko galderak.**


---

<i>Egilea</i>	<i>Dokumentuaren bertsioa</i>	<i>Data</i>	<i>Iruzkina</i>
Yksios Digital Growth	1.0	2021.07.19	Hasierako dokumentua
Yksios Digital Growth	1.1	2021.07.22	Deialdiei buruzko informazioaren atala eguneratzea (I.1)
Yksios Digital Growth	1.2	2021.10.01	Kontratazioari dagokion intzidentzia eguneratzea; <a href="#">HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena</a> (I.3; I.4; I.7; I.8; II.2; II.7; Dokumentazio interesgarria).
Yksios Digital Growth	1.3	2021/11/15	Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako Batzorde Teknikoaren kontratazioen eta dirulaguntzen arloko gomendioak eguneratzea. <a href="#">Zeharkako irizpideak txertatzeko orientabideak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) egikaritzeko</a> (II.8; III.8; intereseko dokumentazioa). Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren kontratazioen eta dirulaguntzen arloko gomendioak eguneratzea: <a href="#">G-2021-01: Gomendioak botere publikoei, merkatuetan lehia bultzatzeko eta ekonomiaren suspertze inklusiboa bultzatzeko</a> . (II.9; III.9; intereseko dokumentazioa)
Yksios Digital Growth	1.4	23.12.2021	Interpretación plazo para aprobación Planes de medidas antifraude a que se refiere el art. 6 de la <a href="#">Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia</a> (I.9)
Yksios Digital Growth	1.5	2021-12-29	Eguneratzea, <a href="#">Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko Jarraibidea, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik (SEEP) datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuen espedienteetan eta plegu gidarietan sartu beharreko alderdiei buruzkoa</a> (II.10)

Espainiako Gobernuak apirilaren 30ean Europako Batzordeari aurkeztutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana irakurri eta kontsultatu ondoren sortzen diren galdera nagusien bilduma da dokumentu hau. Espainiako Gobernuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak xedatutakoaren arabera egin zuen plan hori.

Dokumentu dinamikoa da, Suspertze Plana gauzatzeko tresnak ezagutu ahala eguneratuko baita, eta hiru bloke handiren inguruan egituratzen da –hasiera batean–. Lehena informazio orokorreko blokea da, eta besteak espezifikoagoak dira, plana gauzatzeko erabiliko diren bi tresna nagusiei buruzkoak: lizitazioak eta dirulaguntzak. Antzeko izaera duten beste batzuen aldean, dokumentu honen **balio bereizgarria** da gaiak hautatzerakoan kontuan hartuko direla **toki-erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeenak**.

Toki-erakundeen interesekoak izan daitezkeen Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean aurreikusitako inbertsioen laburpena (milioi €). Informazio gehiagorako, kontsulta ezazu Analisi-dokumentua.



Informazioaren aurkibidea

<b>I. BLOKEA.- INFORMAZIO OROKORRA .....</b>	<b>7</b>
1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalari buruzko zein informazio puntu ofizial daude? .....	7
2. Tokiko erakundeek nola eskuratu ditzakete Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko europar funtsak? .....	7
3. Deialdiak noiz argitaratuko direla aurreikusten da? .....	7
4. Nola eskatu deialdiei buruzko informazioa? .....	7
5. Zein proiektuk jaso ditzakete Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsak? ...	8
6. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko inbertsioak Estatuko laguntzen araudiaren mende daude? .....	8
7. Funtsen jatorriaren publizitatea egin beharko dute onuradunek? .....	9
8. Zer espezialitate ezarri dira iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko? .....	9
9. Iruzurraren aurkako neurrien planak onartzeko epea.....	9
<b>II. BLOKEA - LIZITAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA.....</b>	<b>14</b>
1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen lizitazioek badute berezitasunik?.....	14
2. Ereduzko agiriak edo agiri-tipoak egongo dira?.....	14
3. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratu bat lizitatu behar dut: presako izapidetzea erabili daiteke?.....	14
4. Murriztu al daitezke eskaintzak aurkezteko epeak, espedientea presaz izapidetzen bada? .....	15
5. Zer epe izango dute lizitazailleek Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen esparruan kontratazio-arloko errekurtsio berezia jartzeko? .....	15
6. Erabil al daitezke SPKLren 159.6 artikuluko prozedura ireki sinplifikatuak eta sinplifikatu laburtuak, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuak esleitzeko?.....	15
7. Zer betebeharrak ezartzen dira kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari dagokionez?.....	14
8. Pleguetan zer balorazio-irizpide edo egikaritze-baldintza berezi sartzea gomendatzen da? ...	16
9. Nola lortu kontratazio publiko efizientea? .....	20
10. Zer alderdi hartu behar dira kontuan SEEPtik datozen funtsekin finantzatutako diren kontratuen lizitazio-prozedurak kudeatzean?	
<b>III. BLOKEA - DIRULAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA .....</b>	<b>28</b>
1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen lizitazioek badute berezitasunik?.....	28
2. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako dirulaguntzen deialdiak eta oinarri arautzaileak sar daitezke? .....	28
3. Dirulaguntzak eman al daitezke konkurrentzia ez-lehiakorrean?.....	28

4.	Zer gastu mota dira hautagarriak? .....	28
5.	Berreskuratu ezin den BEZa gastu hautagarria izango da? .....	29
6.	Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzaturako proiektuak ohiko funtsekin, propioekin edo hirugarrenenekin batera finantzatu al daitezke? .....	29
8.	Zer balorazio-irizpide objektibo puntuagarri sar daiteke dirulaguntzak emateko? .....	26
9.	Nola hobetu laguntza publikoen efikazia? .....	28
<b>INTERESEKO AGIRIAK: .....</b>		<b>37</b>

## I. BLOKEA.- INFORMAZIO OROKORRA

### 1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalari buruzko zein informazio puntu ofizial daude?

**Leihatila bakarra** dago, [planderecuperacion.gob.es](http://planderecuperacion.gob.es) atarian daude Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko informazio eta deialdi guztiak.

Gainera, Planari buruzko informazioa [Moncloa](http://Moncloa)ren webgunean dago eta Ministerioen webguneetan ere badago informazioa sakabanatuta.

### 2. Tokiko erakundeek nola eskuratu ditzakete Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko europar funtsak?

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsak gobernu-maila guztien eskumen-banaketa errespetatuz gauzatuko dira, eta administrazio publikoen ordenamendu juridikoan definitutako gastu-moduen arabera. Udalek funts horiek eskuratu ahal izateko ministerioen eta autonomia-erkidegoen deialdietara jo beharko dute (batez ere **lizitazioen eta dirulaguntzen** deialdietara joz, eta deialdi horiek Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak arautzen dituzte, hurrenez hurren).

### 3. Deialdiak noiz argitaratuko direla aurreikusten da?

Tokiko Erakundeak hartzaile gisa dituzten laguntzen hainbat deialdi onartu eta argitaratu dira 2021. urteko udatik.

### 4. Nola eskatu deialdiei buruzko informazioa?

Deialdien arduradunek **harremanetarako puntuak** jarriko dituzte, sortutako zalantzak argitzeko.

	Harremanetarako:	
		
Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa	<a href="mailto:buzonprtr@mitma.es">buzonprtr@mitma.es</a>	
Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua	<a href="mailto:Consultas.prtr@idaa.es">Consultas.prtr@idaa.es</a>	

## 5. Zein proiektuk jaso ditzakete Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsak?

**2020ko otsailaren 1etik aurrera** hasitako proiektu guztiek, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren politiken ildokoak badira.

## 6. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko inbertsioak Estatuko laguntzen araudiaren mende daude?

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko inbertsio eta gastu guztiak **eskumeneko eta Estatuko laguntzen araudien** mende daude. Estatuaren laguntza denean, inbertsio horiek erabat bete behar dute araudi hori. Oro har, laguntzak eman baino lehen jakinarazi behar zaizkio Batzordeari, baina kategoria jakin batzuk (egoera ahulean dauden eskualdeak, ingurumena babestekoak, I+G+Bkoak...) ez dira aurrez jakinarazi behar, baldintza batzuk betez gero.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikulua berariaz ohartarazten duenez, «SEEP gauzatzean errespetatu egin behar dira Estatuaren laguntzei eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari dagokionez ezarritako mugak».

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 107. artikulutik 109. artikulura bitartekoak eta hura garatzeko araudiek mugatzen dute Estatuaren laguntzen araubidea. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241(EB) Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koak, berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoa ezartzen duenak, xedatzen du, 8. Kontuan hartuzkoan, inbertsio pribatuak ere sustatu ahal izango direla inbertsio publikoen programen bidez (bereziki, finantza-tresnak, dirulaguntzak eta beste tresna batzuk), betiere estatuaren laguntzei buruzko arauak errespetatzen badira.

Finantzaketa bikoitzari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Batasunaren Aurrekontu Orokorrari (Finantza Erregelamendua) aplikatu dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoak, 188. artikuluan berariaz xedatzen du finantzaketa bikoitza debekatuta dagoela, dirulaguntzei aplikatu dakiekeen printzipio orokor gisa, eta 191. artikuluan adierazita dago aurrekontuan inola ere ezin izango direla gastu berberak bitan finantzatu. Berreskuratze- eta erresilientzia-mekanismoaren kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241(EB) Erregelamendua 9. artikuluan xedatzen du erreformek eta inbertsio-proiektuek Batasunaren beste programa eta tresna batzuen laguntza jaso ahal izango dutela, betiere laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu.



Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (SEEP) gauzatzen parte hartzen duten erakundeek Estatuaren Laguntzei buruzko araudia uneoro erabat errespetatzen dela bermatzeko prozedurak aplikatu behar dituzte, baita finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko ere. Horretarako, II.B.6 eranskinean autoebaluaziorako galdetegi bat jasota dago, gutxieneko estandarrari buruzkoa, eta III.D eranskinean, berriz, erreferentzia orientagarri bat, Estatuko laguntzen araubidearekiko bateragarritasunari eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioari buruzko eskakizunak betetzea errazteko.

## 7. Funtsen jatorriaren publizitatea egin beharko dute onuradunek?

Bai. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren erantzule den Suspertze eta Erresilientziaren Europako Mekanismoko funtsten onuradunek beren gain hartu behar dute planaren kontura kofinantzatzutako proiektuen publizitatea egiteko, jakinarazteko eta zabaltzeko erantzukizuna.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9.3.b artikuluan xedatutakoaren arabera, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzean garatzen diren proiektu eta azpiproiektu guztietan modu egoki eta nabarmenean erakutsi beharko dira bai EBren ikurra, finantzaketari buruzko adierazpen egokiarekin batera («Europar Batasunak - NextGenerationEU-k finantzatua» dioena, eta, hala dagokionean, tokiko hizkuntzetara itzulita), bai SEEParen logoa (hemen eskuragarri: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>). Era berean, eremu honetan garatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek honako erreferentzia hau izan beharko dute goiburuan zein garapen-testuan: «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak - NextGenerationEU-k finantzatua».

Beste logotipo batekin elkartuta agertzen denean, Europar Batasunaren ikurra beste logotipoak bezain nabarmen eta agerian agertu beharko da gutxienez. Ikurraz gain, ezin izango da beste identitate bisualik edo logotiporik erabili EBren babesa nabarmentzeko.

Gainera, hala dagokionean, erantzukizunetik salbuesteko klausula hau adieraziko da: «Europako Batasunak - NextGenerationEU-k finantzatua. Hala ere, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearen edo egileen iritziak dira, eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez Europar Batasuna ez Europako Batzordea ezin dira horien erantzuletzat hartu».

## 8. Zer espezialitate ezarri dira iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021(EB) Erregelamenduaren 22. artikulua Espainiari ezartzen dizkion betebeharrak betetze aldera, SEM funtsen onuradun gisa Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, **SEEPean jasotako neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde (erabakitzaile zein betearazle) orok «iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan beharko du.** Izan ere, haren bitartez bermatu eta adieraziko dute funtsak erabiltzeko orduan bete egin direla kasu bakoitzean dagokion jarduketa-eremuan aplikatzekoak diren arauak, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez.

«Iruzurraren aurkako neurrien planak» **gutxieneko eskakizun** hauek bete beharko ditu:

- a) Erakunde erabakitzaile edo betearazleak hura onartzea, Agindu hau indarrean jartzen denetik edo, hala badagokio, SEEP gauzatzeko prozesuan parte hartuko dela jakiten denetik 90 eguneko epean.
- b) Iruzurraren aurkako neurriak modu proportzionatuan egituratzea, «Iruzurraren aurkako zikloa» izenekoaren funtsezko lau elementuen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.
- c) Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko funtsezko prozesuetan dagokion erakundeak iruzur-arriskuaren, inpaktuaren eta probabilitatearen ebaluazioa egin dezala aurreikustea, eta aldiari-aldiari ebaluazio hori berrikustea, iruzur-arriskuaren arabera bi urtean behin edo urtean behin, eta iruzur-kasuren bat detektatu den edo prozeduretan edo langile-taldean aldaketa esanguratsuak egon diren guztietan.
- d) Prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak zehaztea, egoera zehatzetara egokituta, iruzurraren hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.
- e) Alerta-seinaleetara egokitutako detekzio-neurriak daudela aurreikustea eta horiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztea.
- f) Iruzurra dagoela susmatzen denean, zuzenketa-neurri egokiak zehaztea, iruzur susmoak jakinarazteko mekanismo argiak ezarrita.
- g) Iruzur susmoaren aurrean, kasuaren jarraipena egiteko eta iruzurrez gastatutako EBko funtsak berreskuratzeko prozesu egokiak ezartzea.
- h) Iruzur efektiboarekin edo potentzialarekin lotutako prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikusteko jarraipen-prozedurak zehaztea, eta iruzur-arriskuaren ebaluazioaren berrikusketan transmititzea.
- i) Espezifikoki, interes-gatazken egoerak prebenitu eta zuzentzeari buruzko prozedurak zehaztea, EBren Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan ezarritakoaren arabera. Bereziki, **nahitaezkoa izango da SEEP betearazteko prozeduretan parte hartzen dutenek interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpena sinatzea**, hierarkian gorago dagoenari izan litezkeen interes-gatazken berri ematea eta azken horrek kasu bakoitzean egokia den erabakia hartzea.

A. Interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpenaren eredu

Espedientea:

Kontratua/dirulaguntza:

Goian aipatutako kontratazio/dirulaguntza prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen dutenek, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuaren parte-hartzaile gisa, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa. Jarraian adierazita dagoenaren berri badutela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046(EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren Finantza Erregelamendua) 61.3 artikulua («Interes-gatazka») ezartzen duenez, *«interes-gatazka egongo da, baldin eta funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen bada familiari, harreman afektiboari, kidesasun politiko edo nazionalari, interes ekonomikoari edo interes pertsonalari zuzenean zein zeharka lotutako arrazoien ondorioz».*

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai zein lizitatzailerak tratu-berdintasuna bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») xedatzen duenez, *«Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zentzuan aipaturiko egoeretakoren batean daudenean, prozeduran esku hartzetik abstenituko dira (...):*

*a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*

*b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta gotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.*

*c) Aurreko atalean aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.*

*d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.*

*e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».*

Bigarrena. Ez daudela, Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez dutela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikulua arabera, lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeen ezein abstenitze-arrazoirik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dutela, luze gabe, horrelako egoeraren bat eragin dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko.

Laugarrena. Badakitela interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatuz gero, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziiplina-ondorioak eta ondorio administratiboak/judizialak ezarriko direla.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

## 9. Iruzuraren aurkako neurrien planak onartzeko epea.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak 6. artikuluan ezartzen duenez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko neurriak betetzen parte hartzen duten erakunde guztiek —erabakitzaileek edo betearazleek— «iruzurraren aurkako neurrien plan» bat izan behar dute, horren bidez, dagokien jarduereremuan, dagozkien funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatu eta deklaratu ahal izateko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokienez.

Artikulu horren 5. atalean adierazitakoaren arabera, «iruzurraren aurkako neurrien plana 90 egunetik beheragoko epean onartu behar da, agindu hau indarrean jartzen denetik edo, hala badagokio, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen parte hartu dela jakiten denetik».

Hainbat forotan zalantzak azaldu dira epe horren zenbaketari buruz. Sarean ugariak dira —dokumentu «ofizioso» batzuetan ere bai— *dies ad quem* abenduaren 31n amaitzen dela dioten interpretazioak, uste baitute orduan beteko dela hiru hilabeteko epea, irailaren 30ean Estatuko Aldizkari Ofizialean Ogasuneko ministroaren agindua argitaratu zenetik zenbatzen hasita. Hori dela-eta, erakunde betearazle batzuek lanari ekin diote plan horiek prestatzeko edo prestatze-lana kontratatzeko, epe hori bete ahal izateko.

Aitzitik, eta irizpide hoberik ezean, interpretazio hori ez da zuzena, akats batetik abiatzen baita, HFP/1030/2021 Aginduan egunetan adierazitako epea hilabetetan adierazita, horrela zenbaketa-arauak aldatuz. Ildo horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.2 artikulua arabera, «epeak egunetan jartzen badira, egun baliodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak». Dena delako egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Arau horrekin -akatsik edo omisiorik ezean-, 2022ko otsailaren 10ean finkatuko genuke *dies ad quem* delakoa, epemuga gisa, iruzurraren aurkako neurrien plana izateko beharra betetzeko, HFP/1030/2021 Agindua argitaratu den egunean Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsen erakunde betearazle direla badakiten erakundeak gogoan hartuta. Data hori zehazteko, 39/2015 Legearen 30.2 artikuluan adierazitakoa betez, egun balioudunak zenbatu dira, larunbatak, igandeak eta jaiegunak kenduta –urriaren 12a, 2021eko azaroaren 1a, abenduaren 6a eta 8a, eta 2022ko urtarrilaren 5a–.

## II. BLOKEA - LIZITAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

### 1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen lizitazioek badute berezitasunik?

Bai. Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuak lizitazioen tramitazioa bizkortzeko berezitasun batzuk ezarri ditu 49. artikulutik 58.era, eta toki erakundeei ere ezarriko zaizkie, erakunde kontratatzaileak direnean.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratu eta esparru-akordioek **lehentasuna izango dute** izapidetzean parte hartzen duten organoek **beste edozein kontraturen gainetik** bidera ditzaten. Era berean, txostenak egiteko epeak bost egun naturaletara murriztuko dira, eta ezingo da epe hori luzatu.

### 2. Ereduzko agiriak edo agiri tipoak egongo dira?

Bai, aurreikusita dago Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik datozen funtsak kudeatzeko kontratuei dagozkien **klausula teknikoen eta administratiboen agiri tipoak argitaratzea**; kontratu horiek beharrezko irizpide berde, digital, berrikuntzazko, ETEak indartzeko eta gizarte erantzukizuneko guztiak bete beharko dituzte, eta dagokien legezko arauaren arabera izan beharko dira.

Oraindik ez da klausula teknikoen eta administratiboen plegu-eredurik argitaratu.

### 3. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratu bat lizitatu behar dut: presako izapidetzea erabili daiteke?

Bai, baldin eta presazko egoerak lizitazio-prozeduren izapidetze arrunta eragozten badu. Baina, horretarako, **kontratazio-espeditentean presazko egoera hori dagoela justifikatu beharko** dute ([Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2021eko martxoaren 11ko Instrukzioa](#)).

#### 4. Murriztu al daitezke eskaintzak aurkezteko epeak, espedientea presaz izapidetzen bada?

Bai, horrela dago aurreikusita 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 50. artikuluan. Presako izapidea izanez gero eta irekitako prozedurak baldin badaude, eskaintzak aurkezteko epeak gutxienez hamabost egun naturalera murriztu ahal izango dira, lizitazio-iragarkia bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

Erabiltzen den prozedura ireki sinplifikatu laburtua bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 159.6 artikularen arabera, eskaintzak aurkezteko epea gehienez zortzi egun naturalekoa izango da. Hala ere, merkatuan eskuragarri dauden ondasunen erosketa arrunten kasuan, epea bost egun naturalekoa izango da.

Prozedura mugatueta eta negoziatiodun lizitazioetan, eskaintzak aurkezteko epea hamar egun naturalera murriztu ahal izango da.

Hala ere, epe-murrizketa horiek ez dira aplikatuko erregulazio harmonizatuko obra-emakiden eta zerbitzu-emakiden kontratuen esleipenean, erabilitako esleipen-prozedura edozein dela ere.

#### 5. Zer epe izango dute lizitatzailerak Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen esparruan kontratazio-arloko errekurtsio berezia jartzeko?

36/2020 Errege Lege-dekretuaren 58.a) artikulua **10 egun naturaleko** epea ezartzen du berezitasun gisa (oro har aplikatzen diren 15 egun baliodunen aldean) Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen esparruan kontratazio-arloko errekurtsio berezia aurkezteko. Epe hori aplikatuko da, baldin eta kontratista hautatzeko prozedurak elektronikoki izapidetu badira, prozedura horrekin errekurritu daitekeen edozein egintzaren aurka errekurtsioa jartzeko (Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 8/21 txostena).

#### 6. Erabil al daitezke SPKLren 159.6 artikuluko prozedura ireki sinplifikatuak eta sinplifikatu laburtuak, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuak esleitzeko?

Bai, 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 51. eta 52. artikuluek prozedura horiek erabiltzeko atalaseak ireki dituzte eta honela geratu dira:

<i>Prozedura ireki sinplifikatua</i>	<i>Finantzaketa arrunta</i>	<i>Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatua</i>
<p>Arrunta (SPKLren 159.1etik 5era)</p>	<p>2.000.000 euroko edo hortik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratueta, eta hornidura- eta zerbitzu-kontratueta, balio zenbatetsia lege honen 21.1 artikulua a) letran eta 22.1 artikulua a) letran ezarritako kopuruen berdina edo txikiagoa izatea.</p> <div data-bbox="624 730 895 871" style="border: 1px solid black; padding: 5px; background-color: #800080; color: white; text-align: center;"> <p>139.000 € entitate guztientzat (KPAB 8/2021)</p> </div>	<p>Europako Batzordeak <b>erregulazio harmonizatuko kontratueta</b> ezarritako atalasetik beherako balio zenbatetsia.</p>
<p>Laburtua (SPKLren 159.6)</p>	<p>80.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, eta 60.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.</p>	<p><b>200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia eta 100.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura- eta zerbitzu-kontratuak.</b></p>

## 7. Betebehar berezirik izango al dute kontratistek eta azpikontratistek?

HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2 artikulua arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua 2. apartatua d) letran ezarritako agindua behar bezala betetzeko, betebehar hauek izango dituzte kideen erakunde erabakitzaileek eta betearazleek, kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari dagokionez, SEEPean aurreikusitako jardueren garapenean sartzen diren lizitazio-prozeduretan:

- a) Kontratistaren edo azpikontratisten IFZ.
- b) Izena edo sozietatearen izena.
- c) Kontratistaren helbide fiskala eta, hala badagokio, azpikontratistena.
- d) Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, eta aplikagarria den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, parte hartzen duten administrazio publikoen arteko datu-lagapena onartzea. Adierazpen-eredu hau sar daiteke administrazio-klausula partikularren pleguen eranskin gisa.



Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpen-eredua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez

..... jn./and, ..... NAN  
zenbakia duena, .....  
erakundearen aholkulari nagusi/gerente gisa, IFZ  
..... duena eta helbide fiskal hau:

.....  
....., SEEP programatik datozen  
baliabideekin finantzatzeko laguntzen onuraduna/kontratista  
gisa/azpikontratista gisa parte hartzen duena XX. osagaien  
(«.....») zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak  
diren jarduerak garatuz, adierazten du badakiela zer araudi aplikatu  
behar den, bereziki 2021eko otsailaren 12ko Europako  
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren  
(Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) 22.  
artikuluko ondoko apartatuak:

1. 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze- eta erresilientzia-planaren  
esparruan inbertsio-erreformak eta -proiektuak egikaritzeko neurriei  
lotutako funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, honako  
datu-kategoria bateratu hauek biltzea, bilaketak egitea ahalbidetuko  
duen formatu elektronikoan eta datu-base bakarrean:

- i. Funtsen azken hartzailearen izena;
- ii. kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzailerik bat denean, kontratazio publikoaren arloko Europar Batasuneko zuzenbidearekin edo zuzenbide nazionalarekin bat etorritik;
- iii. funtsen jasotzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera;
- iv. suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan inbertsio-erreformak eta -proiektuak egikaritzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera; era berean, Mekanismoaren eta Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa adierazi beharko da».

2. 3. apartatua: «Estatu kideek eta Batzordeak artikuluko honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak honako bi kasu hauetarako baino ez dituzte tratatuko, eta kasuok irauten dutenerako baino ez: aurrekontu-kudeaketaren onarpenari buruzko auditoretza eta 15. artikuluko 2. apartatua eta 23. artikuluko 1. apartatua».

aipatzen diren akordioen aplikazioarekin zerikusia duten funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozedurak. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluekin bat etorritz, Mekanismoak txostenak aurkeztera behartuko du, bai Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatzen den finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan, bai, bereziki eta berezita, kudeaketari eta errendimenduari buruzko urteko txostenean».

Azaldu den esparru juridikoaren arabera, adierazten du datuak lagatzea eta tratatzea onartzen duela, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuetarako.

.....(e)n, 202Xko .....aren XX(e)an

Stua: .....

Kargua: .....

- e) Erantzukizunpeko adierazpena, SEEP planean ezarritako zeharkako printzipioak –kudeatuko den esparruan eragina izan dezaketenak– betetzeko konpromisoari buruz. Adierazpen-eredu hau sar daiteke administrazio-klausula partikularren pleguen eranskin gisa.

Konpromisoaren adierazpen-eredua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketak egikaritzeari dagokionez.

..... jn./and, ..... NAN duena, ..... erakundearen organoaren titular/aholkulari nagusi/gerente gisa, IFZ ..... duena eta helbide fiskal hau:

....., SEEP programatik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen organo arduradun/organokudeatzaile/onuradun den aldetik, eta kontratista/enkarguaren erakunde jasotzaile/azpikontratista gisa parte hartzen duena XX. osagaian («.....») zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduerak garatuz, ordezkatzeko duen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzeari dagokionez estandar zorrotzenekin duen konpromisoa adierazten du, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezkoak diren neurriak hartuz eta, hala badagokio, antzemandako ez-betetzeen berri emanez agintariei.

Horrez gain, SEEPen edukiari erreparatuta, ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, bai eta

ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko ere (ingelesezko sigletan, DNSH, hau da, «Do No Significant Harm»), plan horren arabera jarduketak egikaritzean, eta adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik egiten, eta, bere kasuan, ez duela Estatuaren laguntzen araubidearekin bateraezintasun-arriskurik.

.....(e)n, 202Xko .....aren XX(e)an

Stua.: .....

Kargua: .....

f) Kontratistek egiaztatuko dute izena emanda dutela Zerga Administrazioako Estatu Agentziako enpresaburu, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan edo Zergen Foru Administrazioako errolda baliokidean; errolda horrek lizitazio-prozeduran parte hartzen den egunean benetan egindako jarduera islatu behar du.

## 8. Pleguetan zer balorazio-irizpide edo egikaritze-baldintza berezi sartzea gomendatzen da?

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko zeharkako irizpideak txertatzeko orientabideek -Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Batzorde Teknikoak egindakoak- zenbait gomendio jasotzen dituzte kontratuaren pleguetan balorazio-irizpideak edo egikaritze-baldintza bereziak ezartzei buruz.

Administrazio-klausula partikularren pleguari dagokionez, honako hauek jasotzen dira:

- a) Lotetan banatzea: Baldin eta banaketa bateragarria bada kontratuaren izaerarekin edo xedearekin. Lotetan zatitzea aukeratzen ez bada, justifikatu egin behar da, eta justifikazio-dokumentua kontratazio-espeditentean txertatu.
- b) Kaudimen-irizpideak: Zehatzak, proportzionatuak eta kontratuaren **xedera** eta baldintzetara egokitutakoak izango dira, eta ondorio diskriminatzailerik gabeak. Azaroaren 8ko 9/2017 Legean zerrendatutako artean egon behar dute, eta AKPPetan agertu behar dute. Azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kaudimena egiaztatze dokumentazioa, soilik, kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresari eskatuko zaio, aipatutako legearen 140.3 artikulua kasuan izan ezik.
- c) Lizitazioaren oinarriko aurrekontua: Merkatuaren errealitatea kontuan hartuta finkatuko da -ausarkeriazko bajak saihesteko, hori ahal den

guztietan- eta ETE-en ezaugarri bereizgarriak kontuan hartuta; loteak erabiltzea baloratuko da.

- d) Balorazio-irizpideak: Kontratazio-organoak kontratu bakoitzaren azterketa juridiko espezifikoa egingo du, zehazteko ea erabiltzen diren esleipen-irizpideak bat datozen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezarritako baldintzekin.

Gizarte- eta ingurumen-esleipeneko irizpideak zuzenbidearekin bat etor daitezzen, baldintza hauek bete behar dituzte:

- Kontratuaren helburuarekin lotuta egotea; horretarako, irizpideak aipamena egin behar die kontratuaren xede diren prestazioei, bai zuzenean (obrak, hornidura eta zerbitzuak), bai haien bizi-zikloetan adierazitako prozesuren batean esku hartzen duten faktoreen bidez.
- Espezifikoak eta objektiboki kuantifikagarriak izatea.
- Europako zuzenbidea errespetatzea (zehazki, diskriminaziorik ezaren eta zerbitzuak aske ematearen eta ezartzearen printzipioa).
- Aldez aurretik argitaratzea.
- Eskaintza bakoitzak kontratuaren helburuarekiko duen (hau da, kontratua egikaritzean eragin nabarmena izan dezakeen) errendimendu-mailaren ebaluazio konparatiboa egitea ahalbidetzea, espezifikazio teknikoetan zehazten den modua.
- Objektiboa izatea eta gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa bermatzea (hau da, baloratu beharreko objektuari egokitu behar zaio, eta egiazta daitezkeen faktoreen mende egon behar du).
- Kalitate handiko obrak, zerbitzuak eta hornidurak lortzea ahalbidetuko duen irizpidea izatea, haien beharrei ahalik eta hobekien erantzuteko.
- Espedientean behar bezala justifikatzea.

Ahal den guztietan, balora daitezkeen irizpide objektiboak erabiliko dira, hala nola ingurumenari, arlo digitalari, berrikuntzari, ETE-en sustapenari eta gizarte-erantzukizunari lotutako formulen bidez, genero-berdintasuna barne, kontratuaren helburuarekin lotuta egon behar dutenak (kontuan hartuta helburu horren definizioan teknologia-, ingurumen- eta gizarte-arloko faktoreak sartuko direla, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.1 artikuluaekin bat etorriz), betiere kontratua egikaritzeko funtsezkoak badira.

Honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

- Irizpide soziolaboralak: justifikatu behar da kontratuaren xedea egikaritzearekin lotuta daudela eta ez direla diskriminatzaileak.
- Ingurumen-irizpideak:
  - Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 31. artikulua araberak, eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etorriz, zeharka eta nahitaez **ingurumen-irizpideak eta**

**jasangarritasun energetikoko irizpideak** txertatu behar dira, esleitzen zaien haztapenarekin batera, dagokien pleguan, kontratuaren xedearekin zerkusia dutenean. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzaturako kontratuei interpretazio zabalago bat egitea gomendatzen da, eta, ahal den neurrian, hautaketa-irizpide eta balorazio-irizpide gisa sartzeara.

- Martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuan (zeinak **karbono-aztarnaren** erregistroa eta karbono dioxidoa konpentsatzeko eta xurgatzeko proiektuak sortzen baititu) aurreikusitako irizpideak BTPan sartzeak ez du kontratatzeke mugarik sortu behar.
- Prestazioen katalogo bat jarraituko da, zeintzuen kontratazioan kontuan hartuko baitira Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eta Ogasun Ministerioak maiatzaren 20ko 7/2021 Legea indarrean sartzen denetik urtebeteko epean garatu beharreko **klima-aldaketaren aurkako** irizpideak, bai eta beste organo batzuek eman ditzaketen orientabideak ere.
- Administrazio-agirietan, eta, hala badagokio, agiri teknikoetan, berariaz aipatuko da nahitaez bete behar dela **ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa** (ingelesezko sigletan DNSH printzipioa, hau da, «Do No Significant Harm») eta horretarako aplikatu beharreko araudia, bai eta printzipio horri lotutako baldintza espezifikoak ere, Suspertze Planaren osagaiaren neurriaren arabera zehaztuak, zeinetan txertatzen baitira gauzatu beharreko inbertsioak (suspertze-planaren osagai bakoitzaren deskribapen xehearen 8. apartatuan ageri direnak) eta printzipio hori praktikan benetan errespetatzen dela ziurtatzen duten mekanismoak. Horren barruan sar daitezke autoebaluazioak, lizitazailleek dokumentazioa aurkeztean egindako erantzukizunpeko adierazpenak, ziurtagiriak (adibidez, hondakinen kudeaketan) edo kanpo-ebaluazioak.
- Era berean, kontuan hartu behar da jarduketak kokatzen diren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren inbertsioari dagokion **klima-ekarpenaren etiketatzea**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean aurreikusitakoarekin bat etorritik. Etiketa bakoitza errespetatu beharreko baldintza batzuekin lotuta dago, eta etiketa ezagutu ondoren, kasuan-kasuan, ezarritako baldintzak aipatutako Erregelamenduaren VI. eranskinean kontsultatu behar dira. Komenigarria da lizitazioan aipatzea bai Suspertze Planaren osagaia, bai jarduketak sartuta dauden neurri zehatza, Europako Batzordeak onartutako zenbakiarekin. Eta, neurri horretarako klima- edo ingurumen-etiketatzeko jakin bat eska daitekeen zehaztu ondoren, komenigarria da pleguetan jasotzea etiketak direla-eta jarduketak bete behar dituen baldintzak, bai eta kontratua egikaritzean horiek benetan errespetatutako direla bermatzeko mekanismoak ere.

- Irizpide digitalak: BTPetan aurreikusitako jarraipenaren osagarri, aztertu ahal izango da kontratatutako zerbitzuaren jarraipena web-zerbitzu/zerbitzu elektronikoen baten bidez egitea ahalbidetuko duen sistema bat administrazioaren esku jartzea. Baina ez da puntuaziorik emango proposatutako sistema elektronikoa posta elektronikoa bat denean. Beste aukera bat da app bat ematea, zerbitzuen edo horniduren gauzatzearen jarraipena errazteko; kasu horretan, app-aren gutxienezko edukia ezarri beharko da.
- e) Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak: Administrazio-klausula partikularren pleguetan, egikaritze-baldintza berezi gisa arlo hauetako bat gutxienez jartzea gomendatzen da: ingurumena, arlo digitala, berrikuntza, ETEak sustatzea eta gizarte-erantzukizuna. Baldintza hori ezin izango da orokorra izan, hau da, kontratuaren helburuarekin zuzenean lotuta egon beharko du.

Egikaritze-baldintza bereziak eta esleipen-irizpideak bateragarriak dira; beraz, gai bera bi apartatuetan agertzen denean, koherentzia egon beharko da, egikaritze-baldintzek enpresa lizitatzailerorontzat gutxienezko eta nahitaezko maila zein den ezar dezaten, eta esleipen-irizpideen bidez, nahitaezko gutxienezko horretatik harago doazen borondatezko konpromisoak balora daitezten.

Pleguek egikaritze-baldintza berezi bakoitzari lotutako egiaztapen-sistema bat ezarriko dute baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, enpresa esleipendunak baldintza hori behar bezala betetzen duela noiz eta nola egiaztatu behar duen zehaztuz, bai eta baldintza horiek ez betetzeak izango dituen ondorioak ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202.3 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Era berean, maiatzaren 21eko PCI/566/2019 Aginduaren bederatzigarren atalaren eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202.4 artikulua arabera, pleguek enpresa lizitatzailerari adieraziko diete egikaritze-baldintza berezi horiek eskatzeko betebeharra dutela kontratua egikaritzen parte hartzen duen edozein azpikontratatari.

- f) Egikaritzeko funtsezko betebeharrak: Ingurumen-arlokoak, arlo digitalekoak, berrikuntzakoak, ETEak sustatzekoak eta erantzukizun sozialekoak izatea gomendatzen da, baita ere BTPetan finka daitezela, eta, aldi berean, AKPPetan adierazi, horiek betetzen ez badira zigorra jaso ahal izan dezaten (zigorren araubidea zehaztuta) edo kontratua suntsiaraz dadin, ez-betetze bereziki larrien kasuan.

Baldintza Teknikoen Pleguari dagokionez, gomendio hauek egiten dira:

- a) BTPek zehatz-mehatz ezarri behar dituzte kontratua egikaritzeko baldintza guztiak.
- b) Gomendagarria da BTPetan behar diren betebeharrak guztiak zehaztea eta AKPPetan adieraztea betebeharrak horietatik zeintzuk diren funtsezkoak, horiek ez betetzeak zigorra ekar dezan edo, hala badagokio, kontratua suntsiaraz dadin.
- c) Ingurumen-arloari, arlo digitalari, berrikuntzari, ETEak sustatzeari eta gizarte-erantzukizunari buruzko betebeharrak jasotzen badituzte, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluan jasotako erregulazioa aplikatuko da.
- d) Kontratuaren ardura duen pertsona edo unitate kudeatzaileak kontratua egikaritzeari dagokionez dituen betebeharrak adieraziko dira, Europar Batasunak proiektuak benetan finantzatzeko dituela bermatzeko.

## 9. Nola lortu kontratazio publiko efizientea?

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak «Botere publikoentzako gomendioak, merkatuetan lehia eta ekonomiaren suspertze inklusiboa bultzatzeko» izeneko azterlana argitaratu zuen 2021eko uztailaren 7an. Bertan, 30 printzipio jasotzen dira, hiru dekalogotan egituratuta; hauek dira, hurrenez hurren: erregulazio efizienteagoa egiteko gomendioak, laguntza publikoen efikazia hobetzeko gomendioak eta kontratazio publiko efizientea egiteko gomendioak.

Kontratazio publikoaren efizientzia hobetzeko dekalogoak honako gomendio hauek jasotzen ditu:

- 1) Kontratazio publikoa estrategikoki planifikatzea, dituen helburuen arabera erakundeak ahalik eta modurik efizienteenean funtzionatzea ahalbidetzen duten erosketak identifikatzeko eta lehenesteko.
- 2) Lizitazio-prozedura irekiak, gardenak eta ez-diskriminatzaileak sustatzea, lizitatuzaileen parte-hartzea bultzatzeko, ETE-ena bereziki.
- 3) Kontratazio publikoaren ordezkari aukerak (hitzarmenak eta enkarguak, esaterako) mugatzea, norgehiagoka-prozedurei dagokienez efizientzia handiagoa erakusten eta justifikatzen den kasuetara.
- 4) Kontratazio-arduradunen gaikuntza hobetzea, haiek prestatuz eta espezializatuz, ezagutza legal, ekonomiko eta teknikoak dituzten diziplina anitzeko taldeak eratuz eta gero eta konplexuagoak diren merkatuei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak emanez.



- 5) Lehia-neutraltasuna zaintzea, eragile ekonomiko guztientzat lehia-baldintza objektibo eta ez-diskriminatzaileak bermatuko dituen esparru arautzaile (kontratazio publiko orokor eta bereziaren araudia) eta erabakitzailearen bidez (lizitazio publikoaren pleguak), haien nazionalitatea, izaera (publikoa edo pribatua) edo forma juridikoa edozein dela ere, eta lehia bidegabeki eragozten edo murrizten duten neurri protekzionistak saihestuz.
- 6) Eraldaketa ekologikoa eta digitala sustatzea, objektibotasuna eta eragileen arteko lehia bermatuko duten parametroak finkatuz.
- 7) Espedientei buruzko informazio osoa digitalizatzearen alde egitea, eta erakunde publikoen arteko lankidetzeta eta elkarreragingarritasuna sustatzea, batez ere baliabide gutxien dituzten erakundeena.
- 8) Lankidetzeta publiko-pribatuan lehia sustatzea ekonomiaren egitura eraldatzeko helburua duten proiektuak garatzeko, trantsizio digitaleko eta/edo ingurumen-trantsizioko helburuen mesedetan.
- 9) Kontratazio publikoan lortutako emaitzen ebaluazioa egitea, bereziki berrikuntza, eraldaketa digital eta/edo ingurumen-jasangarritasuneko helburuekin lotutako espedienteetan, eta ondorioak argitara ematea.
- 10) Lehiaren agintaritzen eta agintaritzeta arautzaileen laguntza eta aholkularitza izatea; erakunde publikoek nahitaez helarazi behar diote Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN) lehiaren aurkako jokabide-zantzu oro.

## 10. Zer alderdi hartu behar dira kontuan SEEPtik datozen funtsekin finantzatu diren kontratuen lizitazio-prozedurak kudeatzean?

2021eko abenduaren 23an argitaratu zen [Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko Jarraibidea, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik \(SEEP\) datozen funtsekin finantzatu diren kontratuen espedienteetan eta plegu gidarietan sartu beharreko alderdiei buruzkoa](#). Instrukzio **loteslea da Estatuko sektore publikoko SEEPko funtsekin finantzatutako proiektuak gauzatzen dituzten erakundeentzat soilik** (36/2020 Errege Lege-dekretuaren 57. artikulua).

Instrukzioak kontratu publikoek dituzten betebeharrak aztertzen ditu, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren edukiaren ondorioz eta Estatuko, Autonomiako eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen duen irailaren 29ko



HFP/1031/2021 Aginduaren edukiaren ondorioz, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugari eta helburuen eta aurrekontu-eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

## 1. Kontratazio-organoaren edo erakunde betearazleen jarduerak.

Lehenik eta behin, Kontsulta Batzordeak aztertzen ditu SEEPko funtsekin finantzaturako proiektua gauzatzen duen erakunde kontratatzaileak egin beharreko jarduerak. Jarduera horiek eragina izango dute gero proiektu horiei lotutako kontratazio-prozesuetan:

- a) Kontratuen plangintza
- b) SEEPko berriazko kudeaketa-printzipioak betetzea kontratu publikoaren fase guztietan (36/2020 Errege Lege-dekretuaren 2. art.):
  - Mugari eta helburu kontzeptua, eta horren jarraipena egiteko eta emaitza egiaztatzeko irizpideak.
  - Etiketatze berdea eta etiketatze digitala.
  - Arriskuaren azterketa ingurumen-arloko inpaktu negatibo nabarmenei dagokienez (Do no significant harm, DNSH), hasierako ebaluazioaren jarraipena eta emaitzen egiaztapena.
  - Mekanismoak indartzea iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, antzemateko eta zuzentzeko.
  - Estatuko laguntzen erregimenaren bateragarritasuna eta finantziario bikoitzaren prebentzioa.
  - Funtsen azken hartzailearen identifikazioa, dela laguntzen onuradun gisa, dela kontratu baten adjudikaziodun edo azpikontratista gisa.
  - Komunikazioa.
- c) **Kontratu publikoari aplikatutako** iruzurraren, ustelkeriaren edo interes-gatazken arriskua ebaluatzea. Horretarako, kontratazio-organoek jarduera hauek egin beharko dituzte, kontratu prestatzeko fasean:
  - Espedientean esku hartzen dutenek interes-gatazkarik ez dagoela adierazten duen adierazpena bete dezaten sustatzea:
    - o kontratazio-organoaren titularrak,
    - o kontratuaren pleguen idazketan parte hartzen dutenak (bai administrazio-klausula partikularrena, bai preskripzio teknikoena),
    - o kontratazio-mahai edo -batzordeetako kideak eta aditu-batzordeko kideak (adierazpena behin bakarrik egingo da lizitazio bakoitzeko, lehenengo bileraren hasieran, eta aktan jasoko da),
    - o kontratuaren barruan balorazio-txostenak egiten dituzten teknikariak.

- Interes-gatazkei eta iruzurrei aurre egiteko prozedura bat izatea (erakundeak onetsitako iruzurraren aurkako neurrien planean sartuta egon beharko luke, HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikuluan adierazitakoari jarraiki).

## 2. Kontratuaren plegu gidarietan sartu beharreko alderdiak.

Aholku Batzordearen iritziz, Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministroaren 1030 eta 1031/2021 Aginduek zehazten dute zenbait xedapen sartu behar direla SEEPko funtsekin finantzatzen diren kontratuen administrazio-klausula partikularren pleguetan (oraindik ez dira argitaratu 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 54. artikuluan aipatzen diren «plegu-tipoak», baina Aholku Batzordeak adierazten du kasu jakin batzuetan «egitea komeni dela»). Batzordeak adierazi du pleguek hau jaso behar dutela:

- Bete beharreko mugari eta helburuei, horiek betetzeko denbora-eppei eta horiek kontrolatzeko ezarritako mekanismoei buruzko aipamena, eta bete ezean, aurreikusitako zigorrak.
- Kontratuari iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako neurrien plana –interes-gatazka barne– aplikatu beharri buruzko berariazko aipamena, erakunde erabakitzaileak edo betearazleak alde aurretik onartu beharko duena.
- Horretara behartuta dauden pertsona guztiek interes-gatazkarik ezaren adierazpena betetzeko duten betebeharraren aipamena.
- Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2 artikuluan aurreikusitako informazio-betebeharrei buruzko aipamenak (identifikazioa, datuen lagapena onartzea, SEEPn ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizun peko adierazpena, etab.) eta funtsen azken onuradunaren benetako titularrari dagokion informazioa emateari buruzkoa (2021eko irailaren 29ko HFP Aginduaren 10. artikulua).
- Komunikazioaren, goiburuen eta logoen arloko konpromisoak betetzeari buruzko aipamena (irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikulua).
- Kontratua Europako Batzordearen, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende egoteari buruzko aipamena, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidearena.
- Zigorrak. Batzordeak adierazi du beharrezkoa dela pleguan sartzea epeak bete ezean eta interes-gatazkarik ezaren adierazpenak sinatzeko betebeharra bete ezean aplikatu beharreko zigorrak.
- Kontratuak suntsiarazteko arrazoiak. Aholku Batzordeak honako hau adierazten du bere instrukzioan, epeak ez betetzeagatik edo interes-gatazkarik ezaren adierazpenak betetzeko betebeharragatik kontratuak suntsiarazteari dagokionez: «Kontratua suntsiarazteak atzerapen handia ekar dezakeen heinean, eta kontuan hartuta litekeena dela aztertzen ari garen kontratu-moten betearazpena epe mugatu batean amaituta egon

*behar izatea, arrazoi hori dela-eta salbuespenezko kasuetan baizik ez da sartuko –«aplikatu» aipatu nahi al du?– kontratua suntsiarazteko kausaren bat, betiere, atzerapen horrek, ikuspuntu horretatik, kalte nabarmenik eragiten ez badio erakunde kontratatzaileari.»*

- Kontratuak aldatzeko arrazoia. Aholku Batzordearen ustez, egokia da kontratuak aldatzeko arrazoi gisa aurreikustea agintaritza arduradunaren agindua, etiketatze berdearen eta etiketatze digitalaren arloan bere gain hartutako betebeharrak eta horiek kontrolatzeko ezarritako mekanismoak betetzeko neurri zuzentzaileak hartzeko emandakoa, bai eta gorabehera esanguratsurik ez eragiteko printzipioaren ondorioz bere gain hartutako betebeharrak nahitaez betetzea ere, eta ez-betetzeen ondorioak.

### 3. Kontratazio-espedientean sartu beharreko alderdiak:

Kontsulta Batzordeak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko ministroaren 1030 eta 1031/2021 Aginduetako edukitik «ondorioztatzen du» kontratazio-espedientean (hura osatzen duten zein dokumentutan adierazi gabe, baina, gure ustez, hura onartzeko ebazpenean egin liteke) jasota utzi behar dela:

- a. SEEPko funtsen kudeaketari dagokionez alde zuzenetik egindako jardueren aipamena (1. atalean aztertutakoena).
- b. Adierazi behar da **kontratu publikoari** aplikatutako iruzur, ustelkeria edo interes-gatazkako arriskuaren ebaluazioa egin dela.
- c. Adierazi behar da interes-gatazkei eta iruzurrei aurre egiteko prozedura eskuragarri dagoela.

Gainera, espedientearen parte izango dira lizitazioan parte hartzen dutenek, kontratazio-organoak eta, lortzen direnean, kontratistek eta azpikontratistek betetzen dituzten interes-gatazkarik ezaren adierazpen guztiak. Azpikontratistek kontratua formalizatzen den unean bertan edo berehala aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, Batzordeak adierazi du espedientean jaso behar dela organo kudeatzaileak egin behar duen egiaztapena kontratuaren finantziario bikoitzik ez dagoela bermatzeko.

### III. BLOKEA - DIRULAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA

#### 1. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako kontratuen lizitazioek badute berezitasunik?

Bai. Dirulaguntzen tramitazioa bizkortzeko, 36/2020 Errege Lege-dekretuak (abenduarien 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituen Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko), berezitasun batzuk ezarri ditu 60. artikulutik 65. artikulura. Hala ere, manu horietako gehienak oinarritzkoak ez direnez (Azken Xedapenetako Lehenak ezartzen duenaren arabera), Estatuko Administrazio Orokorrari eta Estatuko sektore publiko instituzionalari baino ez zaizkie aplikatuko.

#### 2. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzatutako dirulaguntzen deialdiak eta oinarri arautzaileak bateratu daitezke?

Bai, hala baimentzen du Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuko 61.1 artikulua. Manu hori toki-erakundeek funts horien kontura finantzatutako dirulaguntzei ere aplika dakieke.

#### 3. Dirulaguntzak eman al daitezke konkurrentzia ez-lehiakorrean?

Bai, hori baimentzen du Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuko 62.1 artikulua, beste proposamen batzuekin konparaziozko baloraziorik behar ez duten jardura edo egoera zehatzak finantzatzea xede duten dirulaguntzen kasuan. Kasu horretan, laguntzak emateko ebazpenak eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera eman ahal izango dira, diruz lagun daitekeen egoera edo jardura bat dagoela eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Manu hori toki-erakundeek funts horien kontura finantzatutako dirulaguntzei ere aplika dakieke.

#### 4. Zer gastu mota dira hautagarriak?

Oro har, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren gaineratik dagoen Suspertze eta Erresilientziaren Europako Mekanismoak egiturazko aldaketa dakarten eta erresilientzia ekonomiko eta sozialean, iraunkortasunean, epe luzeko

lehiakortasunean eta enpleguan eragin iraunkorra duten gastu ez-errepikariak baino ez ditu finantzatu.

Baldintza horrekin, deialdiek gastu hautagarriak adieraziko dituzte, eta inbertsio sorta zabala sartu daiteke giza kapitalean (hezkuntza, prestakuntza, osasuna, gizarte-babesa...), kapital finkoan (azpiegiturak, I+G+B...) eta kapital naturalean (energia berriztagarri naturaleko iturriak, ingurumena babestea eta lehengoratzea, klima-aldaketa arintzea edo klima-aldaketara egokitzea...).

## 5. Berreskuratu ezin den BEZa gastu hautagarria izango da?

BEZa ez da sartzen Europako funtsekin finantzatu edo kofinantzatu beharreko proiektuen kostu hautagarrien artean; beraz, erakunde/organismo edo enpresa exekutatzailerik bakoitzak bere gain hartu beharko du. Europar Batasunak laguntzak banatzeko baldintzetan ezarritako irizpidea da, eta gainerako funtsetara zabaltzen da.

## 6. Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsekin finantzaturako proiektuak ohiko funtsekin, propioekin edo hirugarrenenekin batera finantzatu al daitezke?

Deialdietan ezarritako diru proiektu bakoitzaren gehieneko finantzaketa-ehunekoak. Gainerako zenbatekoa kofinantzatu egingo da. Estatuko Abokatutzak, 358/2021 txostenean, interpretatu du Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 59. artikulua aukera ematen duela Europako ez diren funtsekin konfinantzatzeko proiektuak, dela erakunde onuradunaren beraren funtsekin edo beste administrazio batek kofinantzatuta.

Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoa aplikatuz, diruz lagun daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.

## 7. Betebehar berezirik izango al dute dirulaguntzen onuradunek?

HFP/1030/2021 Aginduaren 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241(EB) Erregelamenduak (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak) 22. artikuluan 2.d) apartatuan xedatzen duena behar bezala betetzeko, erakunde erabakitzailerik eta betearazleek, SEEPean aurreikusitako jarduketak garatzeko **laguntzen deialdietan**, jarraian adierazita dauden **betebehar hauek jaso beharko dituzte onuradunen identifikazioari dagokionez (pertsone fisiko zein juridikoak izan):**

a) Kontratastaren edo azpikontratastaren IFZ.

- b) Pertsona fisikoaren izena edo pertsona juridikoaren sozietate-izena.
- c) Pertsona fisiko edo juridikoaren helbide fiskala.
- d) Esku hartzen duten administrazio publikoen arteko datu-lagapena onartzea, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatzen dena betetzeko. **Adierazpen-eredu hau** aurkez daiteke **laguntzen deialdien eranskin gisa**.

Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpen-eredua, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez.

..... jaunak/andreak (NAN: .....),  
..... erakundearen kontseilari  
ordezkari/kudeatzaile naizen aldetik (IFZ: .....; helbide fiskala:  
.....);

....., SEEPetik datozen baliabideekin finantzatzeko laguntzen onuradunak / XX «..... » osagaien zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jardueren garapenean kontratista/azpikontratista gisa parte hartzen duenak, adierazten du ezagutu egiten duela aplikatzekoa den araudia, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241(EB) Erregelamenduaren (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) 22. artikuluko honako atal hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, honako datu-kategoria bateratu hauek biltzea, bilaketak egiteko aukera emango duen formatu elektronikoa eta datu-base bakar batean:

- i. Funtsen azken hartzailearen izena;
- ii. Kontratatoren eta azpikontratatoren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzalea denean, kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo nazioko zuzenbidearen arabera;
- iii. Funtsen hartzailearen edo kontratatoren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotze-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849(EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan definitutakoaren arabera;
- iv. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta, eta Mekanismoaren eta Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa adierazita».

2.3. apartatua: «Estatu kideek eta Batzordeak soilik tratatuko dituzte artikuluko honetako 2.d) apartatuan aipatutako datu pertsonalak, betiere 15.2 eta 23.1 artikuluetan aipatutako akordioak aplikatzeko erabili diren funtsen aurrekontu-kudeaketa eta kontrol-prozedurak onartzeko beharrezko ikuskaritzak irauten duen bitartean, eta haren xedeetarako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 319. artikuluaekin bat etorritik, Mekanismoaren gaineko txostenak aurkeztu beharko dira; batetik, Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatzen den finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan eta, bestetik, bereziki kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean (bereizita)».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, adierazten du datuak lagatzeko eta tratatzeko aukera duela, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuetarako.

....., 202X(e)ko..... aren XX(a).

Sin. ....

Kargua: .....

e) SEEPean ezarrita dauden eta kudeaketaren xede den eremuari eragin diezaioketen zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. **Eredu hau** aurkez daiteke **laguntzen deialdien eranskin gisa**.

Konpromisoaren adierazpen-eredua, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) jarduketak gauzatzeari dagokionez.

..... jaunak/andreak (NAN: .....),  
..... Erakundearen  
titular/kontseilari ordezkari/kudeatzaile naizen aldetik (IFZ: .....;  
helbide fiskala: .....);  
.....  
....., SEEPetik datozen baliabideekin finantzatutako  
laguntzen organo arduraduna/organokudeatzailea/onuraduna den aldetik /  
enkarguaren kontratista/azpikontratista/erakunde hartzaile gisa parte hartzen  
duen aldetik, XX «..... » osagaien zehaztutako helburuak lortzeko  
beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du ordezkatzeko duen  
pertsonak/erakundeak konpromisoa duela arau juridiko, etiko eta moralei  
lotutako estandar zorrotzenak ezarri eta betetzeko. Horretarako, iruzurra,  
ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko beharrezkoak  
diren neurriak hartuko ditu eta, hala dagokionean, dagokion agintaritzari emango  
dio antzemandako arau-hausteen berri.

Horrez gain, SEEParen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du  
ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta Planaren esparruan  
gauzatzen diren jarduketetan ingurumen-inpaktu negatibo adierazgarriak  
saihesteko («DNSH»; ingelesez «do no significant harm» siglak). Era berean,  
adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, berari dagokionez, ez duela  
Estatuko laguntzen araubidearekin bateraezintasun-arriskurik.

....., 202X(e)ko..... aren XX(a).

Stua: .....

Kargua: .....

f) Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten onuradunek egiaztatu egin beharko dute Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen erroldan edo Zerga Administrazioiko Foru Administrazioaren errolda baliokidean inskribatuta daudela, bertan islatu beharko delarik laguntza eskatzen den unean erakundeak zer jarduera ekonomiko garatzen duen.

## 8. Zer balorazio-irizpide objektibo puntuagarri sar daiteke dirulaguntzak emateko?

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako Batzorde Teknikoak egindako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko zeharkako irizpideak txertatzeko orientabideek honako irizpide hauek jasotzen dituzte, **ez nahitaez betetzekoak**, baizik eta aukera gisa, **eta, betiere, behar bezala arrazoitzen badira, dirulaguntzaren xedera egokitzen badira eta laguntzen mugarri edo xedea betetzea arriskuan jartzen ez badute:**

a) Enplegua: zehazki, honako irizpide hauek sar litezke: erakunde eskatzaileak enplegu garbia sortzeko duen konpromisoa –etorkizuneko ekitaldietarako edo dirulaguntza zehatzetarako–, edo laguntzak gauzatzen diren bitartean enpleguari eustea. Orientabideek jasotzen duten eredia sar daiteke:

«Enpresak XX lanpostu sortu beharko ditu proiektu honen xede den establezimenduan, eta lanpostu horiei eutsi beharko die diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu arte. Era berean, enpresak XXXX lanpostu mantendu beharko ditu dirulaguntzaren eskabidea aurkeztzen denetik diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu arte. Lanpostu horietatik, gutxienez XXXX aldi baterakoak ez diren kontratuekin estaliko dira (halaber, ezar liteke enpresak lanpostuei denbora-tarte minimo batez eutsi beharko diela, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitzen denetik aurrera)».

Horrelako irizpideak txertatzen badira, ez betetzeagatik zigorrak sartzeko aukera ere planteatuko da.

b) Azpikontratazioa: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsak Europar Batasuneko herrialdeetara iritsi daitezen, irizpide puntuagarri gisa sar liteke enpresek enplegua sortzea Espainian edo Europar Batasunean.

c) Enplegua sortzeko lurralde-kohesioa: jarduera eta enplegua 5.000 biztanletik beherako udalerrietan nahiz industrialdeetatik kanpo dauden udalerrietan sortzen diren kontuan hartuta. Irizpide horren erabilera behar bezala arrazoitu beharko da, eta ezin izango da orokorrean erabili; izan ere, dirulaguntza eskuratzea zailduko lieke Espainian kokatutako erakunde askori.

d) Genero-alderdia: genero-berdintasuna zeharka txertatuko da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan genero-ikuspegia txertatzeko orientabideen dokumentuan ezarritakoaren arabera.

e) ETEak, mikroETEak, autonomoak eta *start-up*ak: kolektibo horiekin lotutako irizpideak sartu ahal izango dira haiei berariaz zuzendutako dirulaguntzetan, edo,



halaber, sartu ahal izango da kolektibo horiek portzentaje jakin batean dituzten enpresa-taldeak ezartzeko betebeharra.

f) Proiektuetan, ingurumen-kontsiderazioak eta printzipio hauek: *Do no significant harm* (ez eragin kalte esanguratsurik), berdea eta digitala. Irizpide horiek sartzeko, kontsultatu ahal izango dira Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak argitaratutako «Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioarekin bat datozen jarduerak diseinatzeko eta garatzeko gida» eta indarrean den araudia.

Ingurumen-irizpide orokor gisa, kontratazioan jada erabiltzen diren ingurumen-klausulak sar litezke, hala nola puntuazio handiagoa ematea aztertzea ingurumen-helbururen bat lortzen laguntzen duten proiektuei – Taxonomiari buruzko Erregelamenduaren arabera (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 (EB) Erregelamendua, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena)–, enpresak egiten dituen proiektuek Europar Batasuneko etiketa berdea izatea eskatzea edo hondakinen gaikako bilketa eskatzea, besteak beste.

Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioari dagokionez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako oinarri arautzaileetan eta deialdietan berariaz aipatu behar da DNSH printzipioa eta hura aplikatzeko araudia errespetatu behar direla; gainera, printzipio hori praktikan benetan errespetatzen dela ziurtatzeko mekanismoak ezarri behar dira. Aurreikuspen horiek hauei buruzko apartatuetan jasoko dira:

- Laguntzen onuradunen betebeharrak.
- Parte hartzen duten erakundeen edo baterako onuradunen betebeharrak, lankidetzaren proiektuetan,
- Azpikontratutako erakundeen betebeharrak.
- Laguntza-eskaeraren edukia: DNSH printzipioa betetzen dela agertzen duen ebaluazio bat sartzeari proiektuaren memorian (autoebaluazioa, erantzukizunpeko adierazpena, beste batzuk).
- Justifikazioa: DNSH printzipioa betetzen dela agertzen duen ebaluazio bat sartzeari justifikazio-memorian (autoebaluazioa, erantzukizunpeko adierazpena, beste batzuk).
- Egiaztatzea: DNSH printzipioa betetzen delako frogatzea sartzeari egiaztatzen.
- Proiektuaren aldaketak: gomendatzen da proiektua aldatzeko baimena ematea soilik aldaketek DNSH printzipioa guztiz betetzeari eragiten ez badiote.
- Dirulaguntza itzultzeko arrazoiak: gomendatzen da DNSH printzipioa ez betetzea izatea arrazoietakoa bat onuradunak jasotako zenbatekoa itzuli behar izateko. Gainera, gomendatzen da alde aurreko ebaluaziorik

eginez gero, DNSH printzipioa betetzen ez duten proiektuak zuzenean baloraziotik kanpo uztea.

DNSH printzipioa errespetatzeko betebeharrak orokorraz gain, jarduera horiek kokatzen diren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren inbertsio zehatzak berariazko baldintzak jaso ahal izango ditu finantzatutako jardueretan DNSH printzipioa ebaluatzeko, eta baldintza horiek nahitaez hartuko dira kontuan oinarrien eta deialdien aginduetan.

Era berean, kontuan hartu behar da jarduketak kokatzen diren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren inbertsioari dagokion klima-ekarpenaren etiketatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean aurreikusitakoarekin bat etorritik. Etiketa bakoitza errespetatu beharreko baldintza batzuekin lotuta dago, eta etiketa ezagutu ondoren, kasuan-kasuan, ezarritako baldintzak aipatutako Erregelamenduaren VI. eranskinean kontsultatu behar dira. Komenigarria da oinarri arautzaileetan edo deialdian aipatzea bai Suspertze Planaren osagaia, bai jarduketak sartuta dauden neurri zehatza, Europako Batzordeak onartutako zenbakiarekin. Eta, neurri horretarako klima-etiketatzeko jakin bat edo ingurumen-etiketatzeko jakin bat eska daitekeen zehaztu ondoren, aginduan edo deialdian jasotzea etiketak direla-eta jarduketak bete behar dituen baldintzak, bai eta finantzatutako proiektuek praktikan horiek errespetatzen dituztela bermatzeko mekanismoak ere.

## 9. Nola hobetu laguntza publikoen efikazia?

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak «Botere publikoentzako gomendioak merkatuetan lehia eta ekonomiaren suspertze inklusiboa bultzatzeko» izeneko azterlana argitaratu zuen 2021eko uztailaren 7an. Bertan, 30 printzipio jasotzen dira, hiru dekalogotan egituratuta; hauek dira, hurrenez hurren: erregulazio efizienteagoa egiteko gomendioak, laguntza publikoen efikazia hobetzeko gomendioak eta kontratazio publiko efizientea egiteko gomendioak.

Laguntza publikoen efikazia hobetzeko dekalogoak honako gomendio hauek jasotzen ditu:

- 1) Lortu nahi den interes publikoko helburua identifikatzea eta hori lortzeko politika publikoko aukeren kostu-onura balantzea aztertzea. Laguntza publikoak esku hartzeko tresna gisa erabiltzeko, laguntza xeheki aztertu beharko da, laguntza ematearen alderdi positiboak eta negatiboak ebaluatzeko.
- 2) Enpresen gardentasuna eta haien parte-hartzea sustatzea, bereziki ETE-ena, laguntzen deialdietan parte hartzeko.

- 3) Laguntzek onuradunarengan duten eragin pizgarria sustatzea.
- 4) Lehia-neutraltasuna zaintzea, eragile ekonomiko guztientzat lehia-baldintza objektibo, garden eta ez-diskriminatzaileak bermatuko dituen esparru arautzaile baten bidez, haien nazionalitatea, izaera (publikoa edo pribatua) edo forma juridikoa edozein dela ere, eta eragileei justifikatu gabeko abantaila ekonomikoak esleitzea saihestuz. Eragile bat zerbitzu publikoko betebeharren (ZPB) edo antzeko baldintzen mende dagoenean, jasotzen dituen konpentsazio ekonomikoek egokiak eta proportzionalak izan behar dute benetan egiten dituen prestazioen balioarekiko. Gainera, neurri protekzionistak saihestuko dira, eta, interes orokorreko premiazko arrazoi bat dagoelako ezinbestekoa denean izan ezik, saihestu egingo da laguntza publikoak lotzea laguntza ematen duen administrazioari lotutako eremu geografikoan egoitza soziala izateari, edo horren arabera lehenestea. Laguntzen lurralde-lotura ezartzea ezinbestekoa denean, ahal izanez gero jarduera ekonomikoen gauzatzea oinarri duten irizpideetara joko da, ezartze-lekuaren irizpideen gainetik.
- 5) Zorrotzak izatea laguntzak jasotzen dituzten enpresen kaudimen-eta bideragarritasun-baldintzekin, enpresa efizienteen suspertze ekonomikoaren alde eginez. Halaber, badira zenbait mekanismo laguntzak enpresa bideragarriei ematea sustatzen dutenak eta funts horiek enpresa-proiektu kaudimendunetara bidera daitezen sustatzen dutenak, hala nola lortutako abantailen zati bat etorkizunean itzultzera behartzen duten laguntza-tresnak; maileguen, abalen edo bermeen gisako tresnak erabiltzea; eta lortutako abantailen zati bat etorkizunean itzultzea sustatzen duten baldintzetara lotzea dirulaguntzak edo birkapitalizazioak.
- 6) Produktibitateko eta lehiakortasuneko egiturazko hobekuntzak sustatzea, enpresen digitalizaziorako eta ingurumen-jasangarritasunerako eraldaketak errazteko.
- 7) Ahal denean, laguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko prozedurak erabiltzea; era horretan, aurkeztutako eskabideen artean alde zuzenetik ezarritako balorazio-irizpide objektiboetara hobekien egokitzen direnak aukeratu ahal izango dira. Laguntzak zuzenean eman behar badira edo funtsak beste irizpide batzuen arabera esleitu behar badira, arrazoiak justifikatu egin behar dira.
- 8) Plangintza estrategiko eraginkor bat egitea beharrak nahiz horiek asetzeko aukerak aztertzeak. Dirulaguntzen araudi nazionalean aurreikusitako dirulaguntzen plan estrategikoek zehaztu behar dituzte horiek aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak. Gainera, lortu nahi diren helburuek merkatuari eragiten diotenean, lortu nahi diren merkatu-akatsak edo interes orokorreko helburuak behar bezala identifikatu behar

dira, bai eta lortu nahi diren ondorioak ere, ahal den guztietan kuantifikatuta.

- 9) Laguntzek sortutako ondorioen kontrola eta ebaluazioa egitea, etorkizuneko laguntzen diseinua eta efikazia hobetzeko. Halaber, aldizka tarteko ebaluazioak egingo dira, funtzionamendu-akatsak zuzendu ahal izateko, eta ebaluazioak eta hartutako zuzenketa-neurriak publiko egingo dira.
- 10) Lehiaren arloko agintarien laguntza eta aholkularitza izatea.

## INTERESEKO AGIRIAK:

- [EUROPAKO PARLAMANTUAREN ETA KONTSEILUAREN \(EB\) 2021/241 Erregelamendua, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena](#)
- [Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionala, «España Puede»](#)
- [36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onesten dituena.](#)
- [HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena](#)
- [G-2021-01: Gomendioak botere publikoei, merkatuetan lehia bultzatzeko eta ekonomiaren suspertze inklusiboa bultzatzeko.](#)
- [Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko zeharkako irizpideak txertatzeko orientabideak.](#)
- [Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko instrukzioa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik \(SEEP\) datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuen plegu gidarietan eta espedienteetan sartu beharreko alderdiei buruzkoa.](#)